

LILURAREN K

Lilurarik ez zioen Bertolt Brechten poemak, artistak era zitzakeen ilusioen aurka. Gauzak bere horretan erakustea. Hara! Artearentzat, nahiz gizartearentzat teoria. Gaur egun, ordea, gazi-gozo zaigu. Batetik, poetikoak diren hitzok zail dira betetzen; bestetik, problema etiko gehiago dakartzate beren tesian. Landarte programako Arantza Santestebanen lanak badu guzti horrekin zerikusia.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

A benduan amaitu dira 2021ean Landarten garatutako saio artistikoak. Aurreko edizioetan egin izan den bezala, Nafarroako hainbat artista aukeratu dituzte landa eremuko zenbait herritan interbentzio artistikoak egiteko. Horretan datza, izenak berak esaten duen moduan, ekimena: landako artean. Artista edo kolektibo bakoitzak epea izaten du proiektua garatzeko, eta ondoren erakusketa, emanaldi, edo *performance* modura aurkezten dira denak. Proiektu bakoitza autonomoki garatzen den arren, elkarren arteko bilerak eta trukeak ere egiten dira.

Landaren eta artearen arteko harremana tirabiratsua da. Etika antropologikoak, irudi zinematografikoak eta kolonialismoak osatzen duten hirukiak zuzenean du zerikusia tirabira horiekin. XIX. mende amaieran hasi zen zabaltzen zinemagailuaren erabilera, eta garai horretan bertan aitortzen zaio antropologiari berriazko disziplina izatea. Egoera kolonialetan tokian tokiko kulturekiko sortutako jakinminak bultzatzen du irudiaren garrantzia; nolabait, froga edo testigu gisa erabilia zena jatorrizko herrira itzultzen zen ikertzailearentzat. Bestetasuna filmatzera joandako etnografo martiriek ez dute igarotzen, noski, gaur etikoki zuzena denaren langa. Baina, era berean, ez dago egun langa horren neurketa edo de-



finizio adosturik. Akaso, etikaren eztaba da amaigabea da, egon daitekeen etikarik zorrotzena. Batzuentzat, aspergarri dena. Antropologia ez ezik, gero eta ohikoago dira landa munduko esku-hartze artistikoak. Dena dela, badago zer bait landa eta artea hitzak elkartzean gertatzen dena.

Askotan, kanpotik (gehienetan hiritik) iristen den artistak egiten ditu herrietako arte interbentzioak. Hala gertatzen da azken boladan behintzat. Agian garai batean ohikoagoak ziren herrian bertan sortu eta lan egiten zuten artistak. Gero, ordea, artean nahiz beste ogibide gehienetan, kanpoan lan egitea gailendu zen industrializazioak behartuta; herriko beharrak asetzetik urruti, hiriak

populatzen hasi ziren. Orain, badirudi kontrako mekanismo batek hartu duela indarra, landa munduko ekimen artistikoak gero eta gehiago baitira. Hala gertatzen da gurean ere. Egon liteke lotuta euskalduntasun bukolikoaren iruditegiarekin, edo krisi ekosozialaren alarmarekin. Baliteke herrian aurkitzea zenbaitek hirian jada galdu diren baliok. Beste batzuek, hiriko estresa egun batzuez utzi eta erlaxazio gune gisa irudikatzen dute. Norberak badu motibazio propioa; alabaina, denak dira kanpotik eraikitako landarekiko proiektzioak. Eta horrek badu ardura bere barruan. Jarraituko dugu horren inguruan pentsatzen datozen lerroetan.

ONTRA

Arantza Santestebanen laneko fotograma.

Landarte programari dagokionez, Anne Ibañez eta Marc Badalek koordinatzen duten ekimena da, 2017az geroztik gauzatzen dena. Ibañezek eta Badalek osatzen duten kolektiboak, Kanpoko Bulegoa deritzonak, hainbat proiektu gauzatu ditu aurretik, artearekin eta landa munduarekin lotuta daudenak. 2016an egungo sistemak behartzen duen abiaduraren inguruko gogoeta biltzen duen *Mundo clausurado* (Itxitako mundua) liburua argitaratu zuen autoedizioaren bidetik. 2017an, *Endemis(t)moak, la frontera como hábitat* (Endemis(t)moak, muga habitat gisa) egitasmoa gauzatu zuen Nafarroa Beherean, Baserriko Arte Sarearentzat. Hainbat formakuntza eskaini ostean, Landarteren koordinazioa eta bitartekotza daramatza kolektiboak, eta herrietan egiten diren artisten egonaldien zein prozesu artistikoen lekuko da. Kolektiboaren lana idazketan, diseinuan, gogoeta kolektiboko prozesuetan eta lurralde-dinamizazioan oinarritzen da.

Aurtengo Landarte edizioa sei herritan garatu da, sei artista edo kolektiboren eskutik. Batetik, Katixa Goldarazenaren esku-hartzea izan da Zubietan, gorputzak bizitzan duen presentziari buruzko hausnarketa egiten duena. Lizarra inguruko Murieta herrian Conjunta kolektiboa ari da lanean *De Chopera a Chopera* esku-

hartzean. Agezan Taxio Ardanaz izan da *Cabalga Cabalga* proposamenarekin, eta Maion Cruza artistarekin batera landu du antzerkiaren eta zinemaren inguruko lana. Murillo el Fruton Ana Maestrojuán aritu da *Informazio-kapsulak* izeneko proiektua garatzen. Artistaren esanetan “herria herritarrentzat zer den eta zer izan zen kontatuko du, hainbat adin eta jatorritako herritarrekin egindako topaketan grabazioen bidez. Askotariko ahots eta ikuspuntu hainbat modutan grabatu eta adieraziko dira”. Artzibarren Pr0t0c0lectiv0 taldeak *Descamino* sormen-lana garatu du.

Artikulu honi izena ematen dion proiektua Arantza Santestebanek Araitx Ibarrean egindakoa dugu: *Liluraren kontra. Aura hautsi*. Santestebanek Araizko ibarrean azken hamarkadetan garatu diren jardun artistiko batzuen eta paisaiaren arteko harremana arakatu nahi izan du. Bailaran ezagunak diren Maioak ditu horretarako motibo, eta Lou Reedek mendilerroari ateratako argazkia izan du artistak abiapuntu. Reeden argazkian, paisaiak lanbro berezia du inguruan, eta argitasun handia du. Walter Benjaminen aurari buruzko gogoetak bultzatuta, Santesteban saiatu da ikertzen aura moduko hori nola bilakatu ikusgai. Horretaz gain, ibarraren irudi bukoliko horretatik hara-

go, hango problematikara hurbildu nahi izan du, eta hortik *aura hautsi*. Hainbat artistek egin bezala, esku-hartze artistikoa gauzatu nahi izan du, baina tokiaren idealizazioa zalantzan jarrita.

Egonaldiak amaitu ostean, hemezortzi minutuko film dokumental esperimentala izan da emaitza. Bailaran bizi diren pertsona batzuk jarraitu ditu Santestebanek Maioetan barrena. Batetik, landa munduko aldatetz mintzo den gizona; bestetik, jatorrizko herrialdetik urrun dagoen emakumea; baita kamera berezi batez enkoadratzen duen beste emakume bat ere; eta azkenik, Tik-tok-ak egiten dituzten eta ilunabarrari argazkiak ateratzen dizkioten gazteak. Bakoitzak badu ingurua begiratzeko, argazkian jasotzeko eta erregistratzeko modu bat. Eta baita ulertzekoa ere. Artistak ere badu berea. Ikuspuntuen eta auraren arteko jolasak bakarra ez den espazioaren ulerkera osatzen du, ekosistema bizidun gisa.

Ibilbidearekiko zintzoa da emaitza. Beste batzuk begiratzen dituen filma, besteak ere begira dauden bitartean. Toki batekiko errepresentazioa izan ordez, errepresentazioetara gerturatzen saiatzen den irudikapena da. Araitx ibarreko egunerokoan pentsatzeaz gain, artearen eta landaren arteko loturan pentsatzen ari dena. ●